

**DIRULAGUNTZA IZENDUNA
HITZARMENA**

CONVENIO DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA

Elorrión, 2023ko maiatzaren 10ean.

En Elorrio, a 10 de mayo de 2023.

BILDURIK

Alde batetik, IDOIA BURUAGA BÁRCENA andrea, Elorrioko Udaleko alkatea.

Eta bestetik, ERNESTO SAINZ LANCHARES jauna/andrea, NA 16280604P duena, EUSKA FONDOAren izenean eta hura ordezkatzuz (aurrerantzean, onuraduna), zeinak IFK G48772487 duen eta helbidea Aieteko Jauregia, Aiete Pasealekua, 65-2., 20009 Donostia duen.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundearen izenean hitzarmen hau izenpetzeko era, helburu horretarako:

ADIERAZTEN DUTE

Sustapen-jarduera sektore publikoaren finantza-jardueraren zati garrantzitsua da eta dirulaguntzen bidez bideratzen da. Sustapen-jardueraren helburua da pertsona eta erakunde publiko nahiz pribatuaren gizarte- eta ekonomia-eskaerei erantzutea finantza-laguntza emanez.

Sektore publikoaren finantza-jardueraren zati hori araututa dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Lege honen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan.

Aipatutako araudiak ezartzen duenez, dirulaguntzen kudeaketa honako printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza,

REUNIDOS

De una parte, D^a IDOIA BURUAGA BÁRCENA, Alcaldesa del Ayuntamiento de Elorrio.

Y de otra, D./D^a ERNESTO SAINZ LANCHARES, con DNI 16280604P, en nombre y representación de EUSKAL FONDOA (en adelante beneficiaria), CIF G48772487, con domicilio en Aieteko Jauregia, Aiete Pasealekua, 65-2.a, 20009 Donostia.

Las dos personas intervinientes se reconocen capacidad y representación suficiente para suscribir en nombre de las instituciones que en este acto representan el presente convenio y, a tal efecto:

EXPONEN

La actividad de fomento, que constituye una parte importante de la actividad financiera del sector público, se canaliza a través de subvenciones, con el objetivo de dar respuesta con medidas de apoyo financiero a las demandas sociales y económicas de personas y entidades públicas o privadas.

Dicha parte de la actividad financiera del sector público está regulada por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley.

La normativa citada establece que la gestión de las subvenciones se realizará de acuerdo con los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, no discriminación, eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la

Administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna. Hori guztia, legez aurreikusitako emate-prozeduren bidez.

Araudi horrek norgehiagoka-prozedura ezartzen du dirulaguntzak emateko araubide orokor gisa. Hala ere, Legearen 22.2 artikulua ezartzen du honako dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango direla:

a) Dagokion toki-erakundearen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak, dirulaguntza arautzen duen Hitzarmenean jasotako baldintzetan.

Hala, Legearen 28. artikulua dioenez, dirulaguntzak zuzenean emateko prozedurari dagokionez, dirulaguntza hori bideratzen duten emakida nahiz hitzarmenen ebazpenak finkatuko ditu aplikagarriak diren baldintza nahiz konpromisoak, betiere Legeak xedatutakoa betez. Hortaz, hitzarmenak dira toki korporazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko dituzten ohiko tresnak.

Horri buruz, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikulua ezartzen duenez, aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak honako hauek dira: helburua, aurrekontuko zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastu-egoera berariaz zehaztuta dituzten dirulaguntzak.

Aurrez esandako guztia kontuan hartuta, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, eta hitzarmenak klausula hauek izango ditu.

KLAUSULAK

LEHENA.- Araudi erregulatzailea

Dirulaguntza honen emakida honen arabera dago araututa:

a) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Administración otorgante, eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos. Todo ello a través de los procedimientos de otorgamiento previstos legalmente.

Dicha normativa establece como régimen general de concesión de subvenciones el procedimiento de concurrencia competitiva; no obstante, el artículo 22.2. de la Ley establece que podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:

a) Las previstas nominativamente en los presupuestos de la entidad local respectiva, en los términos recogidos en el Convenio regulador de la subvención.

Al respecto, el artículo 28 de la Ley dice, con respecto al procedimiento de concesión directa de subvenciones, que la resolución de concesión y los convenios a través de los cuales se canalice dicha subvención, establecerán las condiciones y compromisos aplicables de conformidad con lo dispuesto en la Ley, siendo los convenios el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente por las Corporaciones Locales.

El artículo 65 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, establece que son subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos aquellos cuyo objeto, dotación presupuestaria y beneficiario aparecen determinados expresamente en el estado de gastos del presupuesto.

Teniendo en cuenta lo antedicho, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, con arreglo y sujeción a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Normativa reguladora

La concesión de esta subvención está regulada por.

a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren araudia onartzen duena.

c) Elorriko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza Orokorra, Udalbatzak 2010eko otsailaren 11an onartua eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2010eko maiatzaren 10ean argitaratua.

d) Hitzarmen honen klausulak.

BIGARRENA.- Dirulaguntzaren helburua

Bi aldeek adostu dute dirulaguntza hau honakoa finantzatzeko dela:

b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elorrio, aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 11 de febrero de 2010 y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia del 10 de mayo de 2010.

d) Las cláusulas contenidas en el presente convenio.

SEGUNDA.- Objeto de la subvención

Ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar:

P321-23 “El Salvadorreko udalerrietan genero ikuspegiarekin tokiko gobernagarritasuna eta gobernantza indartzea. 4 fasea (4)”

P321-23 “Fortaleciendo la gobernabilidad y gobernanza local con perspectiva de género en municipios de El Salvador. Fase 4 (4)”

HIRUGARRENA.- Aurrekontuaren zenbatekoa eta kreditua

Oroharreko prezioan emango da dirulaguntza, eta haren zenbatekoa hauxe izango da:

TERCERA.- Cuantía y crédito presupuestario

La cuantía de la subvención, que se concederá a tanto alzado, asciende al importe de:

//1.500,00// €

Elorriko Udalak indarrean duen 2023ko aurrekontuaren kontu-sail honi egotziko zaio:

Imputado a la siguiente partida del vigente presupuesto general 2023 del Ayuntamiento de Elorrio.

2.3.0.0 480.04

LAUGARRENA.- Dirulaguntza emateko baldintzak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko

CUARTA.- Condiciones de otorgamiento.

Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables aquellos gastos que resulten estrictamente necesarios, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad y se realicen

aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira honako hauek:

- a) Langile gastuak.
- b) Joan etorrien gastuak.
- c) Prestakuntza eta sentsibilizazio gastuak.
- d) Boluntarioen aseguruekin lotutako gastuak.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaratuak eta zigorrak administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zerga

Dirulaguntzaren berri ematea:

Argitaratutako publizitatean eta ekitaldia egingo den lekuan egongo den publizitatean adierazi beharko da Elorrioko Udalak laguntza eman duela.

Beste baldintza batzuk:

- a) Propaganda, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo da.

Jendaurreko ekitaldietan, aurkezpenak, sarrera, agurrak, oharrak... ahal dela euskaraz egingo dituzte antolatzaileek, edo euskaraz eta gaztelaniaz bestela. Berezi ki urte eta gaztetxoentzat diren emanaldiak nagusiki euskaraz izango dira.

con anterioridad a la finalización del plazo previsto para la ejecución de las actividades subvencionadas. De este modo, se estimarán subvencionables todos los gastos corrientes relacionados con:

- a) Gastos de personal.
- b) Gastos de desplazamiento.
- c) Gastos de formación y sensibilización.
- d) Gastos relacionados con los seguros de las personas voluntarias.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- c) Gastos de procedimientos judiciales.
- d) Impuestos directos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.
- e) Impuestos sobre la renta.

Difusión de la subvención:

En la publicidad que se edite o que se coloque en el lugar de celebración del evento se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Elorrio.

Otras condiciones:

- a) La propaganda, tanto oral como escrita, se hará en euskera o en euskera y castellano.

En los actos públicos, las intervenciones de los organizadores (presentaciones, introducción, saldos, avisos,...) se harán en lo posible en euskera o en euskera y castellano, dando siempre prioridad al euskera.

Argitaratzen dituzten iragarki, ohar eta gainerako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dituzte eta hala zabalduko dituzte.

b) Onuradunak kontuan hartuko du genero ikuspegia sortuko diren txosten, idatzi, datu-bilketa, estatistika, ... guztietan; halaber, hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko ditu sortuko diren dokumentu eta euskarri guztietan.

Dokumentuetan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkuntzaren ez sexista erabiliko da eta emakumeen edo estereotipo sexisten irudi diskriminatzailea erabiltzea saihestuko da. Halaber, balio hauek sustatuko dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero-rolen eta identitateen aniztasuna.

c) Elkartek Elorrioko Udalarekin izango dituen ahozko, nahiz idatzizko harremanak euskaraz izango ditu.

Bi alderdiren artean akordio batera iritsiz gero, udalerrian burutzen diren ekintzetan parte hartuko du / udalak eskainiko dituen programetan hartuko du parte / bere jarduerareman sartuko den eta bere parte hartzea derrigorrezko den bestelako ekintzetan hartuko du parte. Udalak hala eskatuz gero.

BOSGARRENA.- Hitzarmena izenpetzea

Hitzarmena izenpetu aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak, Elorrioko Udalak ordurako ez baditu:

a) Erakunde eskatzailearen IFKren fotokopia.

b) Ordezkaritzaren egiaztagiria. Zuzenbidean balio duen edozein bideren bidez egiaztadateke (notario-ahalordea, eskriturak...).

c) Entitatearen estatutuak, Elkarteen Erregistroan izena eman izanaren ziurtagiriarekin batera.

Los anuncios, avisos y demás textos publicados serán escritos y dados a conocer en euskera, o en euskera y castellano.

b) La entidad beneficiaria tendrá en cuenta la perspectiva de género en todos los informes, escritos, recogida de datos, estadísticas, etc. Realizando un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que se produzcan.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

c) Se compromete a que tanto las relaciones orales como escritas con el Ayuntamiento de Elorrio sean en euskera.

Colaborar, previo acuerdo entre las dos partes, en los actos que tienen lugar en el municipio / en los programas que ofrezca el Ayuntamiento / en cualquier otra actividad relacionada con su área de actuación en la que sea necesaria su participación y ésta sea solicitada por el Ayuntamiento de Elorrio.

QUINTA.- Firma del convenio

Previo a la firma del convenio la beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación, en el caso de que no estuviera ya en poder del Ayuntamiento de Elorrio:

a) Fotocopia del CIF de la entidad solicitante.

b) Acreditación de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...).

c) Estatutos de la entidad, junto con justificante de su inscripción en el Registro de Asociaciones.

d) Onuradunak Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikulua ezartzen duen debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

e) Onuraduna zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela eta dirulaguntzak itzultzeagatik diru-ordainketarik egiteke utzi ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena. Hori frogatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eta Ogasun eskudunak egindako egiaztagiria aurkeztu behar ditu adierazpen horrekin batera.

SEIGARRENA.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publikotatik zein pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri, baldin eta diruz lagundutako jarduerak duen kostutik gorakoak ez badira, betiere beste laguntzak edo dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezartzen dutenaren kalterik gabe.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta modua

Oro har, onuradunaren aldeko betebeharra aitortzeko eta ordainketa egiteko, ezinbestekoa da justifikazioa aurkeztea, Hitzarmen honek berak ezarritako eran eta baldintzak beteta. Era berean, ezinbestekoa da justifikazio hori egiaztatzea Diru-laguntzen Lege Orokorraren Araudiaren 84. artikulua ezarritakoaren arabera.

3. Klausulan zehaztutako diru kopuru guztiaren transferentzia, Udalak Euskal fondoa zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duenean egingo da, modu aurreratuan.

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo dira honako kontu korrontera:

d) Declaración responsable de no encontrarse incurso en las prohibiciones previstas en el artículo 13.2 de la LGS

e) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, acompañada de certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería General de la Seguridad Social y la Hacienda competente.

SEXTA.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

SEPTIMA.- Forma y plazos de abono de la subvención

Con carácter general, la presentación de la justificación, en la forma y con los requisitos previstos en este Convenio, y su comprobación de conformidad en los términos establecidos en el artículo 84 del RLGS, será condición indispensable para que pueda procederse al reconocimiento de la obligación a favor de la beneficiaria y a su pago.

La transferencia de la citada cantidad en la cláusula 3ª. Se efectuará de forma anticipada, cuando el ayuntamiento compruebe que Euskal Fondoa se halle al corriente con las obligaciones tributarias y con la seguridad social.

El pago se realizará mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente:

ZORTZIGARRENA.- Berme-araubidea

Onuradunari ezin izango zaio bermerik eskatu, ez delako ikusten hitzarmen honen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

BEDERATZIGARRENA.- Dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko onuradunak duen epea eta modua

Jarduera egiteko edo dirua erabiltzeko epea honako egunean amaituko da:

OCTAVA.- Régimen de garantías

No será exigible la prestación de garantía por parte de la beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

NOVENA.- Plazo y forma de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

El plazo para la realización de la actividad o aplicación de los fondos finalizará el:

2024/12/31

Diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko onuradunak duen epea 2026ko martxoaren 31an amaituko da.

Justifikatzeko modua JUSTIFIKAZIO KONTU bidez egingo da, formatu digitalean aurkeztuko da eta honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza emateko jarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.

b) Jarduerak izan dituen gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatua, hartzekodunak eta dokumentua identifikatuta eta bakoitzaren zenbatekoak eta jaulkipen-eguna azalduta

c) Justifikatzeko balio duten fakturak edo horien ordezkioak, ordainagiriak, baita nominak, zergak zein Gizarte Segurantzako kuotak eta trafiko juridikoan edo eraginkortasun administrazioan pareko frogak balioa duten eta egindako gastua erakusten duten gainerako agiriak ere, betiere modu korrelatiboan ordenatuta.

d) Justifikatzeko balio duten fakturak edo horien ordezkioak, ordainagiriak, baita nominak, zergak zein Gizarte Segurantzako kuotak eta trafiko juridikoan edo eraginkortasun administrazioan pareko frogak

El plazo de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finalizará el 31 de marzo de 2026.

La forma de justificación será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA, que se presentará en formato digital y contendrá los siguientes documentos:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos e ingresos de la actividad, con identificación del o la acreedora y del documento, su importe y fecha de emisión.

c) Copias de documentos justificativos, facturas o documentos sustitutos, recibos, incluso nóminas, tributos y cuotas a la Seguridad Social y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado, ordenados correlativamente.

d) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, acompañada de

balioa duten eta egindako gastua erakusten duten gainerako agiriak ere, betiere modu korrelatiboan ordenatuta.

e) Fakturen eta aurkeztutako gainerako egiaztagirien benetakotasun adierazpena.

HAMARGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Elorrioko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiek Elorrioko Udalak behar bezala baimenduta dauzkan fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baimena ematen diola.

Sinatzen duenak adierazten du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, eta ez duela ezer isilean gorde edo aldatu..

Hitzarmena sinatu duenak baimena ematen dio Elorrioko Udalari:

a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori utzi edo jakinarazi ahal izango dizkie datuok.

b) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko beharrezkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, udal sail eta atal guztietan eta beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Azkenik, hitzarmen hau izenpetzen duenak adierazten du argibide guztiak jaso dituela berak eman dituen datuak eskuratzeko eta hala badagokio zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatze eskabidea egiteko

certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería General de la Seguridad Social y la Hacienda competente.

e) Una declaración de autenticidad de las facturas y demás documentación justificativa aportada.

DÉCIMA.- Protección de datos de carácter personal.

Con la firma del presente convenio, la firmante declara que reúne todos los requisitos establecidos en el mismo y que acepta íntegramente las condiciones y obligaciones recogidas en él.

Así mismo, la firmante manifiesta que los datos personales facilitados al Ayuntamiento de Elorrio son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Elorrio.

La firmante declara que la información facilitada para la firma de este convenio es cierta y que no ha sido omitida o alterada.

La firmante autoriza al Ayuntamiento de Elorrio:

a) A que el uso de dichos datos de carácter personal se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceras en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

b) A realizar todas las consultas que fueren necesarias en los ficheros de las áreas y servicios municipales u otras Administraciones Públicas, a fin de obtener la información que resulte relevante para la correcta gestión de la subvención objeto de este convenio.

Finalmente, la firmante declara que ha sido debidamente informada de la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos

aukeraren inguruan. Betiere goian aipatutako lege horrek ezartzen duen eran.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenaren interpretazioa

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora bideratu beharko da bere interpretazioari, jaiotzari, aldaketari edo amaierari buruz sortzen den edozein auzi.

ELORRIOKO UDALAREN IZENEAN
Por el AYUNTAMIENTO DE ELORRIO

establecidos por la Ley indicada anteriormente.

UNDÉCIMA.- Interpretación del convenio.

Este convenio tiene carácter administrativo y cualquier cuestión que se suscite en relación a su interpretación, nacimiento, modificación o extinción deberá sustanciarse ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

EUSKAL FONDOAREN IZENEAN
Por EUSKAL FONDOA